

# t tipi t tapa

410


2005eko azaroaren 17a • XXV. urtea



## 1940-60ko gazteei buruzko liburua

04

Rosa Arburuak «1940-1960. Bortzirietako gaztiak» izeneko liburua argitaratu du. Gerra ondoko belaunaldiaren bizi gogorraren testigantza bildu du.



## Eskualdeko futbito txapelketa abiatu da

24

17 taldek parte hartuko dute Baztan-Bidasako XIII. futbito txapelketan. Lehen aldiz, bi kategoriatan banatu dituzte eta igogerak eta jautsierak izanen dira.



03

OHITURA ZAHARRAK BERRESKURATZEKO

Bigarren Azienda Feria  
Goizuetan azaroaren 26an

I. URTEURRENA

www.lurelizando.com

azaroak 18

STRAWWYZE

STRAWBERRY HARDCORE

00:45 Debalde



azaroak 19

La Pulquería

1:00 12 euro + kontsumizioa

SEMILLA SOMÁTICA azaroak 25

KANTU ZAHARRAREN EGUNA  
EUSKAL MUSIKA BESTA azaroak 26

HAMLET abenduak 3

## DATUAK...

- Azaroko azken larunbatean, azaroaren 26an, antolatu dute Goizuetan auziendako feria berrituaren bigarren edizioa.
- Udala, Umore Ona eta Goizueta Bizirik taldeaz gain, Zaharren Elkarteak eta Gazte Asanblada ere buru-belarri sartu dira aurten antolakuntzan.
- Miren Terexa Uitzl, Goizueta Bizirik Herri Plataformako kidea antolaketa taldean dago eta lazko edizioak «aurteikuspen baikorrenak gainditu zituela» dio.



Miren Terexa UITZI Goizueta Bizirik Herri Plataformako kidea

## «Goizueta biziberritu eta ohitura zaharrak berreskuratzeko hasi ginen feria egiten»

Esteban AROTZENA

Azaroaren azkenengo larunbatean, 26an, feria berrituaren bigarren edizioa ospatuko dugu. Zergatik hasi zineten festa hau antolatzen? Feria egitea pentsatu genuenean datarena izan zen erabakirik errezena. Orain dela 25-30 urte arte azaroko eta abenduak azkenengo larunbatean feria izaten zen Goizuetan, eta guk bi horietako bat hautatu genuen, azarokoa hain zuzen. Arrazoiak berriak, nik bi aipatuko nituzke bereziki: Hain ahul dauden herriko nekazaritza eta abeltzain sektoreak zerbait biziberritzea batetik, eta Goizuetako ohitura zaharrak berreskuratzea bestetik. Beno, eta zergatik ez? Baita paranda ederra botatzeko beste aukerarik bat izateagatik ere.

**lazko edizioak bete al zituen zuen asmoak?**

Zalantzarik gabe. Gure prebisionik baikorrenak gainditu ziren. Auziendak ekarriko edo zer edo zer saltzera ateratzen 42 herritarrek parte hartu zuten. Horietatik gainera, 300 lagun elkartzeko ginen herri bazkarian, eta kaleko giroa ederra izan zen egun eta gau osoan. Le-

«Herria bizirik mantentzen laguntzen dute bertan antolatzen diren emanaldi guztiak. Azken 35 urteetan %40an jeitsi da Goizuetako biztanlegoa»

henbiziko urterako ez zegoen gehiago eskatzerik.

**Feria egitearen arrazoiak eman dizkidazu lehen, baina nola sortu zen ekimen hau eta nork osatzen du zue antolakuntza taldea?**

«Goizueta Bizirik» Plataformak luza-tu zien ideia Udalarik eta Umore Ona Elkarteak. Hauek arrunt ongi hartu zuten gure proposamena, eta lan taldea osatzeaz gain bereak egiten dituzte aurre sortzen diren gastuei. Gu hiruraz gain, antolakuntzan daude herriko beste hainbat erakunde ere. Aipagarriena Gazte Asanblada da. Aurten gazteak buru-belarri sartu dira lanean eta goi mailako ekitaldiak antolatu dituzte azaroaren 26rako. Herri-tar guzieren artean prestatu eta denon artean gozatu nahi dugun ekitaldia

da, azken finean.

**Zertan gauzatu litezke feriarekin herria biziberritzearena eta ohitura zaharrak berreskuratzearena?** Herria bizirik mantentzen laguntzen dute bertan antolatzen diren emanaldi guztiak. Azkenengo hogeita bost urteetan %40an jeitsi da Goizuetako biztanlegoa. Hori larria da eta guztien premia dago beraz. Ohitura zaharren berri emateko lagungarri dira bestalde, lazko hainbat lanabesen erakusketa, gurdiak... eta aurten egiten diren erakustaldi batzuk, tolarren sagarra txikitzea edo iratze meta egitea esate baterako.

**Bukatzeko. Zer esanen zenieke elkarrizketa hau irakurtzen ari den Goizuetatik kanpoko bati?**

Inguruko feri erraldoi horiek baino "gureagoa", atsegina eta goxoagoa da gurea. Hori da behintzat guk eman nahi diogun ukitua, eta ziur lortu dugula. Heldu denak, ederki konprobatu du. Presarik gabe etortzea gomendatuko nuke gainera, ilunabarreko eta gau osoko giroa ere ziurtaririk baitago. Beraz, denak gonbidatuak zaudete!



ARGAZKIA: «1940-1960. BORTZIRIETAKO GAZTIAK» LIBURUK

Bi hamarkadetan ehun lagun baino gehiago joan ziren Bortzirietatik Ameriketara, batez ere AEBko Nevada eta Kalifornia estatuetara.

Rosa Arburua irakaskuntza eta ikerketa lanetan aritzen da, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan doktorea da. Bere bizitza Bidassoa inguruarekin erabat loturik dago: gurasoak etxalartarrak, Irunen jaioa, Nondarribian bizi eta azken hamarkada honetan Berako Institutuan Geografia eta Historia irakasle da. Historia ezagutza horretaz baliatuz, "1940-1960. Bortzirietako Gaztiak" liburua argitara emanen du laisten. Bertan, belaunaldi horretako bizipenak biltzen dira: lanbideak, istorioak, gertakariak... Ez da Rosa Arburuak idatzi duen lehen liburua, bai ordea hezkuntzarekin lotura zuzena ez duen bakarra. Halere, «bere alde pedagogikoa eta praktikoa ere badu». Rosa Arburuak dioenez, «Munduko historia ematea hagitx ongi dago, baina iruditzen zait bertako historia eta hain hurbil dugun historia berreskuratu behar dela».

«1940-1960. BORTZIRIETAKO GAZTIAK» LIBURUA IDATZI DU ROSA ARBURUAK

## Gerra ondoko belaunaldiaren bizi gogorraren testigantza bildu du

Aitor AROTZENA

Liburu honetan murgiltzeko bul-tzada familiatik datorkio Rosa Arburuari, haurtzaroan etxean aditutako istorioetatik: «Nik ttiki-ttikitatik aditu ditut holako istorioak, batez ere kontrabandisten istorioak gure etxean aunitz aditzen ziren. Neretzako kontrabandisten mundu hura mundu fantasiosoa izan zen ttikitik. Handitzera-koan kontrabandista izan nahi nuela gogoratzen dut. Gero eta handiagoa,

orduan eta fantasia ttikiagoa, gauzak bere tokian jartzen joan naiz. Gero nere amari ere aunitz entzuten nion, bertze aldera joaterakoan zer aldaketak ikusi zituzten, zer askatasuna lortu zuten, bertze aldean lan aunitz eginez bertze bizimodu bat izaten zutela. Horrelako istorioekin hazi naiz».

Liburua 1940 eta 1960 urteen artean kokatzen da, Espainiako Gerraren ondotik, Irakaslearen ustez, gerrak eragin nabarmena izan zuen in-

guru honetan, gizartearen hainbat arlotan. «Orduko gazteek aurre egin behar izan zioten egoera latz bati. Aurrrera egin zuten lan aunitz eginez eta halako fientasun batekin. Belaunaldi hori miresten dut». Gerrak eragin handia izan zuen hemen ere, eta pertsonalki familietan ere eragina izan zuen toki guztietan, baina Espainiako bertze lekuekin konparatuz ez omen zen hain latza izan. «Lesaka eta Beran denbora gutxi iraun zuen gerrak, bai-

na gogorra izan zen, fusilatua izan ziren. Familiak fuerte hunkitu zituen. Lesakako batzuk fusilatu zituzten eta bertze batzuk fusilatzeakotan egon ziren. Doi-doi libratu ziren apez baten medioz. Etxalarko Celeonio Etxeberria pare bat aldiz egon zen fusilatzeakotan eta bietan libratu zen. Istorio pertsonal gogorak izan ziren».

Gerraren bertze eragina, ondok jaiotza-tasa aunitz jautsi zela izan omen zen. «Gerra baino lehenago familietan 10-12 haur izatea ohikoa zen. Gerra ondorian ezkontza guttiago izan zen, egoera latza zen eta jendea ez zegoen ospakizunetarako».

### BASERRIA, KONTRABANDOA, MENDI LANA, EMIGRAZIOA...

Bortzirietako gazteen lanbideetaz ere aritzen da luze eta zabal "1940-1960. Bortzirietako gaztiak" liburua. Garai horretan baserria zela ardatza eta mamia azpimarratu du Rosa Arburua. Gero ikerketa egin du garaiko bertze lanbideetan: «Aldi batetik kontrabandoa, bertetik mendi lanak, batez ere Arantzako aunitz Iratiko oihanera joan ziren; batzuetan harrigarria egiten bazaigu ere, Beratik batez ere aunitz Terranovara joan ziren bakailo arrantzara; neskak Iparraldera sasoi egitera joan ziren, maiatzetik urrira bitarte batez ere, bertako ostatueta lan egitera. Horietatik batzuk Parisera joan ziren; azkenik, Ameriketara emigrazioa izan zen, Nevada eta Kaliforniara batez ere».

1960. hamarkadan, industria indartzen hasi zenean lanbide hauek poliki-poliki desagertzen joan ziren Bortzirietan.

## GIZON ETA EMAKUMEEN LANBIDE EZEZAGUN HORIEK

Bortzirietatik atera ziren neska gehienak Lapurdiko kostara sasoi egitera joan ziren, maiatzetik urrira bitarte batez ere, bertako ostatueta lan egitera. Horietatik batzuk Parisera joan ziren. Hemen gelditu ziren emakumeak baserri ingurukoak ziren eta garaian emakumeek egin ohi zuten lanak egin zituztela dio Rosa Arburua: «Baserrian laguntzen, anai edo arreba tikiren bat bazuten hura zaintzen, etxeko lanak egiten, jostera joaten ziren, horrelako egoeratan zeuden». Kanpora edo bertze al-

de-  
ra joan ziren neskek, al-diz, diru irabazteaz aparte, hori hagit garrantzitsua baitzen, izan zuten gauza aunitz ikasteko aukera. «Bertze toki batzuk ezagutu zituzten, bizitzeko bertze modu bat... Frantzia garai horretan aitzinago zegoen, ekonomia indartsua zuen. Neska hauek, gainera, beti zeuden prest gauzak ikasteko. Gaur egun protokoloa deritzon hori ikasi zuten, adibidez, mahaia nola jarri... Bere egoera pertsonalarentzat hagit inportantea izan zen: baserriko mundu itxi horretatik eta baserriatik karrakara, mezara... betiko erutina horretatik atera ziren eta

begiak haunditu zitzaizkien, hori dudarik gabe».

### TERRANOVAN BAKAULO ARRANTZAN

Teorian Bortzirietan lehomeko jendea izanik, lanbiderik ezezagunena bakailo arrantzaleena izan daiteke. Halere, uste dena baino garrantzi handiagoa izan zuela gorai-patzen du Rosa Arburua. «Guttiago solasten da honi buruz, baina Bortzirietako 158 mutilek atera zuten kartilla, arrantzara joateko baimena: Berako 70, Lesakako 55, Etxalarko 17, Igantziko 11 eta Arantzako 5. Ameriketara garai horretan, 1940tik 1960ra, 101 lagun joan ziren. Eta aunitz gehiago aditzen dira amerikanoen istorioak arrantzaleenak baino. Ez dakit zergatik. Akaso Ameriketara joaten zirenak, aunitz bertan gelditzen zirelako eta urte aunitz egiten zituztelako. Arrantzaleak itsasoratzen ziren eta batzuk sasoi aunitz egiten zituzten eta bertze batzuk gutti. Etxalarko batzuk, berriz, kontrabandoa egin zuten eta hori jautsi zenean, mareak egitera joan ziren itsasora. Bakoitzak ahal zuena egiten zuen aitzinera egiteko!».



### Rosa ARBURUA Liburuaren idazlea

## "Bizia ateratzeko zituzten aukera eskasak aprobetxatu zituzten"

Liburuan bildu dituzun istorio guzien artean, kontrabandoa, emigrazioa... zein da gehien hunkitu zaituena? Titiketik entzunak nituen istorio horiek, baina bakoitzak bere ukipen berezia izan du. Guziek bere xarma berezia eta nere mirestea dute, ez nuke bat bereziko. Jende honek meritu handia du, dudarik gabe. Bizimodua ateratzeko kanpora joan behar izan zuten

belaualdi baten kronika da liburua?

Familia handiak ziren, gerra ondok izan zen, denentzako ez zuten lurrik ematen, fabrikarik ez zen. Gazte hauek espabilatu ziren, langile porrokatuak ziren, ausartak eta bizia aitzinera nolabaitere atera behar zuten. Aunitzek erran didate, 'zer nahi zenuen egitea?'. Ez zuten bertze aterabiderik eta nonbait jokatu behar zen, ezin

zuten geldirik egon. Jateko aukera handirik ez zuten, baina goserik ez omen zuten pasatu. Gero, bertze gauzetarako dirurik ez zuten, bizi berri bat hasteko ez zuten eta zeuden aukera eskasak aprobetxatu zituzten.

Laguntzarik izan duzu liburua egiterakoan?

Argitaratzeko dirua Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Udalbidek jarri dute. Liburua egiteko ate guziak irekiak izan ditut eta jendearekin aunitz solastu dut, argazkiak utzi dizkide...



Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Franko Itundua: 34/79  
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria  
Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 50  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
www.ttipi.info  
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa  
Presidentea: Pello Apeztebas  
Kudeatzailea: Joxemianuel Irigoin  
Zuzendaria: Aitor Arotzena  
Publizitatea: Kulturkari, SLU  
Administrazioa: Amaia Goia  
Berriemakalariak: Esteban Arotzena, Juana Mari Salzar, Kontxi Klaber, Pello Zestau, Arkaitz Mendegia, Franck Dolozor, Margarit Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Aitzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Miteletorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Gorri, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...  
Imprimategia: Gertu  
Erakunde laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizuetza, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperoko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Mainerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

#### Harpidetza sarriak:

Hego Euskal Herria	28 €
España	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Mainerreka eta Leitza	23 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernua laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

## • IRAKURLEAK MINTZO •

### Kotto Aitzuguren euskal presoaren heriotza dela eta

Gaur, urriak 31, hilik aurkitu dute Kotto Aitzuguren euskal preso beratarra. Gertaera samin honen inguruan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen izenean zera adierazi nahi dut:

1. Kotto Aitzuguren mankomunitate honetako kide izan zen, Berako Udalaren ordezkari gisa. Hain zuzen ere, 1990ean, mankomunitatearen sorreran, parte hartu zuen bertako Batzorde Erabakitzailean.

2. Mankomunitateko batzorde guztien izenean Kottoaren heriotzaren aitzinean samina agertzen dut, eta halaber, Kottoaren familiari eta lagunei dolumina adierazten.

3. Kottok bere bizitzan nazio-gintzan eta euskalgintzan egindako lanaz oroitzeko momentua da. Herritar eredu garria izan da, Euskal Herriaren nortasunaren defendatzaile sutsua eta bere printzipioekin eta konpromisoekin koherentea.

**Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen izenean, lehendakaria Vicente Arotzena Biurraena**

### Igantziko Udalak Joxe Angel Aitzuguren «Kotto»ren heriotza dela eta

Igantziko Udaltzatuko kideok, Joxe Angel Aitzuguren «Kotto»ren heriotza dela eta, gure atsekabe eta doluminak helarazi nahi dizkiogu bere familia eta lagunei, Berako ezker abertzaleari eta Berako herritarrei.

Bidebatez, Herriko Etxean eta bertze hainbat arlotan «Kotto»k egin duen lan isilean erakutsitako apaltasun eta eskuzabaltasuna goraipatu nahi dugu.

Estatuko agintariei, berriz, «Kotto»ren heriotza eragin duten arrazoiak azken muturreraino ikertzea

exigitzen diegu. Izan ere, bere gaitotasuna kontuan hartuta, «Kotto»ren atxiloketa eta gartzelera-tzea ez dira, gure ustez, edozein presori dagozkion eskubide minimoak ere errespetatu.

Bidebatez, preso sakabana-keta behin-betikoz indargabetez aldarrikatzen dugu, gure ustez, legaltasuna hausteaz gain, gaur egun Euskal Herrian bizi dugun gatazkaren sufrimendu eta oinazea haunditu bertzerik ez baitu egiten.

**Igantzi, 2005eko azaroaren 2a**

### Igantzi eta Dantxarinereko lan istripuak

ARALARek Igantzin eta Dantxarinerean lan istripuetan hildako bi langileen heriotza salatzen du, eta Nafarroako Gobernuari eta Espainiakoari lan istripuen kontra inplikazio handiagoa eskatzen die. Soilik lege eraginkor batekin eta neurri zehatz eta baliabide ekonomiko aski bideratuta bukatu ahal izanen da da langileen heriotza kopuruarekin.

Lan eta kontratazio prekarietateak, hala ahalbidetzen duten legeen bidez, zabor-kontratuek eta azpikontratek, lan segurtasuneko berme ezarekin batera, lan istripu eta heriotzen gehiengoaren sorleku dira.

Gauzak horrela, ARALARek Nafarroako Gobernuari benetako konpromisoa eskatzen dio, lege eraginkorren bidez, eta Gobernu bere eredu izanik, jasangaitza bihurtzen ari den egoera honi irtenbidea eman diezaiola.

**Aralar**

### Kotto

Astelehenetik Euskal herria triste ta lur joak gare / Presondegiko leihotik oihu samin batek egin alde / Heriotzaren oihartzun latza ezin sinetsirik gaude / Gure etsaiak soka tiratzen ari dira etengabe / Euskal Herria itotzen duen sokak hil du Kotto ere.

Sara ta Bera anai arrebak hemen ez dugu mugarik / Naturalak ez diren mugari inposatuak bakarrik / Kottok aspaldi erakutsia hortan ez zela dudarik / Hainbat heriotz sufrikario ez da izanen alferrik / Argia berriz itzuliko da ez ukan duda izpirik.

Gizon zintzoa, maitagarria umoretsu ta umila / Zikiro erretzen paregabea neska-zalea mutila / Parrandarako bertsolaria ta mendizale abila / Gure borrokak daramanetan azkena izan dadila / Kottok garrasi bihurtu duen hutsunearen ixila.

Kotto maitea ez haugu hola eskapatzera utziko / Ez diagu nahi hire agurrik hurrengo arte eta kitto / Nola sinetsi gure artean ez haugula ikusiko / Hire irri eta laguntasuna gure baitan duk betiko / Lagun guziak egunen batez Larrunen ga elkartuko.

**Sarako Lagunak**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



AIZU 2005-11

«Irizpideak hor daude, baina denok desberdinak gara, eta desberdin pentsatuko dugu. Orduan, batek agian garrantzi gehiago emango dio erimari, eta beste batek bertsolariak aurreko bertsoari nola erantzun dion... Aurtengoan argi ikusi da ez dela joan behar zigortzera, baizik eta bertsolariak egiten duen lana saritzera».

**Saioa MITXELENA**  
Euskal Herriko  
Bertsolari txapelketako  
epaile beratarra  
AIZU 2005-11

«Batzuetan turistek tabakoa erosten dute, baina hagitz larri daudenean eta pakete bakarra. Normala da, nola erosiko dute hemen, kilometro guttira marka berdinak hagitz merkeago erosteko hainbat benta dituztenean? Orain zergak igo dituzte, baina prezioen arteko aldea beti egon da, lehen liberekin eta orain euroekin. Nik argi daukat ez dudala tabakoa aunitz salduko».

**Lesca ANNIE**  
Sarako Tabako  
Bulegokoa  
D.Navarra 2005-11-04

## • 11 GALDERA LABUR •

**Berako Lurraren Egunean sagardorik onena... Espero zenuen?**

Egia erran ez. Probatu dutenei hagitz ona iruditzen zaie, baina Bortziritan hainbortze partaideren artean onena ateratzea ez nuen espero.

**Lehenbiziko aldia zen lehiaketa batean parte hartzen zenuela?**

Bai. Nik botilak prestatu eta alabak eraman zituen. Deitu zuten arte aski urduri pasa nuen goiza, eta deitu zutenean berriz ezin sinetsi. Hagitz gustura hartu dut sari hau, egindako lanaren eta ilusioaren ondorio baita.

**Urtean zenbat litro sagardo egiten duzue etxean?**

Sagardoa egiten 2002an hasi nintzen eta orduan 200 litro egin nituen. 2003an ez nuen sagardorik egin ez bainuen sagarik lortu, urte txarra. 2004 an, mila litro inguru egin nituen sagar dezente lortu bainuen.

**Etxeko sagarra erabiltzen duzu edo kanpotik ere ekartzen duzu?**

Bai, etxeko sagarditik erdia eta bertzea ahal den lekutik, lagunei erositak, anaiaren sagarditik hartuta...

**Dolarea etxean duzue?**

Bai, nik neuk eskuz egindakoa, ikusgarria benetan; 450 bat sagar kilo sartu daitezke, ongi ongi estututa.

**Etxean sagardo egiteko ohitura akautzen edo biziberritzen ari da?**

Nire kasuan biziberritzen ari da. Orain dela 3 urte hasi nintzen honetan. Txikitari Alkaiagan egiten genuen,

dolare bat auzo guztiarentzako. Orduko oroitzapenak hagitz onak ditut.

**Etixerako edo saltzeko?**

Etixerako eta lagunentzako, eta erosi nahi duenarentzat badugu ere.

**Feria egunean bazkaltzeko, sagardoa edo ardo beltza?**

Sagardoa, noski.

**Eta Eguberrietan, txanpaina baino nahiago duzu sagardoa?**

Egun berezi horietan ez dut nik agintzen, emaztea janariaz arduratzen da eta seme-alabak berriz edariaz, txakolina, ardo bereziak, txanpaina...

**Urtarrilean sagardotegiaren garaia irrikiko da berriz ere. Joateko ohiturarik baduzu?**

Bai, bertze sagardogileen sagardua probatzea gustatzen zait, baita bertako festa giroa ere gustuko dut.

**Bakailao-tortilla eta txuleta dira sagardoarekin bustitzeko jakirik onenak?**

Horiek bakarrik ez,

aski ona

gelditzen da

zardinzahar

tortillakin,

gaztaina

erreekin...



**Joxe Mari ELGORRIAGA**  
*Lesakako sagardogilea*

**ANTZUZELAI S.L.**

Itzagi emp. - BEFA - Tel. 945-020317

**HARRI NATURALA**

**ANTZUZELAI S.L.**

Arrozak	Tortillak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak
Arrozak	Arrozak

Wapenak / Arrozak / Arrozak / Arrozak

**ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK**

**moda**

**PREMAMA**

*Mirari*

Zatuz !! edo jantzeko behar duzun guttia daukagu!

Serapio Mujika, 14 • IRUN  
Tfnoa: 943 020 030

**IRIBURU GAZINETXE ETXEBERRI**

**ANZABAL**  
AGENTZIA

- Zurich Aseguruak**  
• Autoa, etxebizitza, itzripa eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza**  
• Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala**  
• Errenta Deklarazioak, IVA...
- Inmobiliaria**  
• Baserri, bordsa, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- Gestoria**  
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santigo 15 - EIZONDO  
Tel eta Faxa: 940 200904 • [anzabalmirari@eizondoko.com](mailto:anzabalmirari@eizondoko.com)

## KULTURA

# Juan Larramendi Berako margolari haundia hil da

XX. mendeko Nafarroako margolari handienetakoa izan zen eta Berako arte mugimendua bultzatu zuen

## ttipi-ttapa

Urriaren 12an hil zen Juan Larramendi Arburua margolari beratarra, 88 urte zituela. Artista handia izan zen, pintore figuratibo bikaina eta marrazketa ederki menperatzen zuena. Juan Larramendik aztarna sakona utzi du Beran, herrian bizi den mugimendu artistikoaren *erru* handia berea baita. Dua berrogei bat urte Berako 13 gazte bildu zituen bere ezagupenak erakusteko eta horietako batzuk margolari eza-gunak dira gaurko egunean. Sorterrian utzitako aztarna horren seinale, Berako Kultur Batzordeak agertu dion eskerrona, «*utzitako ondareagatik eta eskualdean oro har, eta bereziki Berako herrian, pin-*

*turarako sortutako afizioarengatik, baita herriko kultur gintzari egin-dako ekarpenarengatik ere».*

Horretaz gain, bere gizatasunarengatik ere gogoratua izanen da. Gizon irekia zen, lagun lagun eta solasaldi errazekoa. Ttipi-ttapa aldizkariaren hasieran ere laguntzaile bikaina izan zen. Aunitzek oraindik gogoratuko dute aldizkariaren azaletarako eta ttipi-ttapa argitaratu zuen egutegi baterako egin zituen marrazkiak.

## MARRAZKILARIA HERBESTEAN

1917an sortu zen Beran. Bere gisara ikasitako pintorea izan zen, 1936 urtera arte Donostiako El Dia egunkariko kolaboratzailea

izan zen. Gerora Eusko Jaurlaritzako lehendakari izanen zen Jesus Maria Leizaolaren ipuin laburrak ilustratu zituen bere marrazkiekin. 1937an herbestera joan behar izan zuen eta 1940an herrira itzuli zen. Bere bakarkako lehen erakusketa Bilbon egin zuen, 1944an, eta urtebete beranduago Iruñean. Donostian eta Argentinako Mar de Platan ere erakutsi zituen bere lanak. Ondotik, Parisen bizitu zen, Souverbières tallerrean ikastensegitzeko. Handik, 1947an Venezuelara joan zen. Hegoamerikako hainbat herrialdetan erakusketak egin zituen bere gararik emankorrenean. Ameriketatik 1969an bueltatu zen Berara. Be-



ARTXIBOKO

Bera eta inguruko kultur mundua bultzatzen lagundu zuen Juan Larramendi margolariak. Ttipi-ttapa aldizkariaren hasieran ere lagundu zuen, kolaborazioak idatziz, azalak marraztuz eta egutegiak diseinatuz.

re lanetako batzuk ikusgai daude Iruñeko Udaletxean eta, ustez, Nafarroako Jauregian. Izan ere, 1945ean beka eman zion Diputazioak «Castaños de Elzaur-

pea» margolanaren truke. Baina bekaren 60.000 pezetak ez zituen inoiz kobratu eta margolan harekin zer gertatu zen ez zuen inoiz jakiterik izan.

**Alberto RETEGI**  
Altzate, 17 BERA • 948 630 763  
**abokatua**

**ZUBIONDO JATETXEA**  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TLF 948 625 472  
sagardotegia jatetxea sagardotegia

**BAR Botxo OSTATUA**  
• 94830052-Zain-BERA

**E D A R I A K**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

**PIKABEA**  
harategia • urdaitegia  
janari prestatuak

Askain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

**ZJ**  
**Zalain**  
jateketa  
Hostala

14 logela,  
bainu eta TBrekin

• ZALAIN UN • TEL 948 63 10 27 •  
Bera - Nafarroa



**BERA**

## Kotto Alzuguren omenaldi hunkigarriarekin agurtua izan zen

Preso beratarra Soriako kartzelan agertu zen hilik

Amaia eta Ainhoa

Azaroko lehendabiziko astea ahaztezina izanen da beratarrenzat. Soriako kartzelan sartu berri zuten Kottoren heriotza ezagututa hainbat ekitaldi hunkigarri izan ziren herrian: ongi etorria, hileta elizkizuna, greba, elkarretaratzak... Azaroaren 5ean, larunbatean, Bortzrietako euskal preso politikoen senideek eta ezker abertzaleak Beran deitu zuten manifestazioa eta honek sekulako erantzuna izan zuen. Milaka lagun ibili ziren herriko karraketan, "Kotto maite zaitugu, Errepresioa ez da bidea" lelopean. Jende gehiena bertakoa eta ingurukoa bazen ere, euskal Herriko herrialde guzietatik etorri ziren. Kottoren argazkiak irekitzen zuten bidea. Ondotik, Euskal Herriko eta Berako ezker abertzaleko buru batzuk pankarta eramaten zuten eta honen gainean "konponbide demokratikoa orain, errepresioa ez da bidea" irakurtzen ahal zen. Guardia Zibilak jendea inguratu eta tentsio uneak izan baziren ere, azkenean lasaitasun osoz joan zen manifestazioa.



Hainbat eta hainbat lagun bildu zen Kotto Alzuguren gorpuari ongietorria ematera. Herriko Etxean jarri zen hil-kaperatik ere jende aunitz pasatu zen.

Herriko Etxeko plazaetik abitutako ibilbidea bukatu eta gero, jende guziaz Alzateko pilotalekuan bildu zen Kottori omenaldia egiteko. Ekitaldian bere lagunek modu ezberdinetan omendu zuten: Josu Goiak Internazionala kantatu zuen, Estitxu Arozena eta Xabier Silveirak bertsoak, Bortzrietako errepresaliatuek aureskua eskaini zioten, Corteseko fusilatuen izenean olerki bat irakurri zioten, Sarako koadrilak ere bertsoak abestu zizkion, diaposi-

tiba emanaldi batekin bere bizitza oroitu zuten... Fernando Barrenak hitz batzuekin bukaera eman zion Kottori eskaini zitzaion omenaldi hunkigarriari.

### Joseba Irazokik diska berria

Joseba Irazoki musikari beratarrak diska berria argitaratu du. Joan den udan DO taldearekin diska argitaratu zuen, Tokian tokiko izeneko. Mingele Quartet taldearekin ere hiru minid argitaratu zituen. Lehenagotik Onddo tal-

dearekin *Errepideak ez ditut maite* diska atera zuen baina 2004an hasi zuen *Iri eta solas* diskaarekin bakarkako ibilbidea. Beraz, esperientzia haundiko mutila da eta oraingoan *Gizona zakuregin* zen diska aurkeztu du. Hirusta Recordsen grabatua. Lu-xuzko musikariak izan ditu ondoan: Mikel Artieda (Berako kontrabaxua), Mikel Etxegarai (Berako bateria), Iban Urizar (tronpeta), Iban Ginea (tronboia) eta Mikel Errazkin (soinu teknikaria).

**FLASH**

### Soziolinguistika Jardunaldiak

Azaroaren 18 eta 25ean izanen dira 6. soziolinguistika jardunaldiak. Bidasoako Ikerketa Zentroak antolatuta, Jमतenean arratsaldeko 18:30etatik aitzin hitzaldi ezberdinak aditu ahal izanen dira: azaroaren 18an Iñaki Agirreazkuenagak Zonifikazioa ikuspegi juridiko batetik gaia jorratuko du eta azaroaren 25ean Zonifikazioa euskalduntzeko arazo instituzionala eremu ez euskaldunetan gaiaz ariko dira. Fernando Mikelarenak, zehazki, «Ikastola alegalak» hitzaldia emanen du eta Roldan Jimenok Noaingo proiektua azalduko du.

### Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrea

Azaroaren 27an, igandean, bertsolaritza maite dutenek hitzordu garrantzitsua dute Beran. Arratsaldeko 17:00etan, Eztegara pilotalekuan, Euskal Herriko Bertsotzaile Elkarteak antolatuta, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoa ospatuko da.

### Ricardo Baroja Eskolatik eskerrak

Berako Ricardo Baroja Euskal Eskola Publikoko 25. urteurrenerako Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie urriaren 8an eginiko besta ongi ateratzeko bere laguntza eta parte hartzea eskaini duten guztiak.

**ANSONEA** *Jaletxea*  
Eguneroko menua eta asteburutan menu bereziak  
Ostatua bere terraza estaliarekin eta ziberkafetegia  
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

**D**  
Eguzki penerak  
• Kurgin  
• Elektrizitatea  
• Aire egokitua  
• Inklusibitatearen errendak  
Tel. 933 982 482 - 933 441 015 - 933 015 932 Fax. 948 632 082

**JAIONE - GOZOTEKIA**  
Aizoa, 18-9483078 - BERA

LESAKA

# Aranzadi eta Oteiza Fundazioarekin hitzarmena sinatu du Udalak

Agiñan dauden eskultura eta kapera zaintzeko elkarlana egingen dute

Aitor AROTZENA

Agiñan Aita Donostiari eskainitako Monumentuari eta "Piedra en el Paisaje/Harria Paisaia, Oteiza-Vallet, Agiña, Lesaka 1956-59" erakusketari buruzko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten azaroaren 3an Lesakako Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartek eta Jorge Oteiza Fundazio Museoak. Aranzadi Zientzi Elkartek Oteizaren eskultura eta Valleten kapera zaintzeko egin beharreko zaharberritze lanak egiteko eta ordaintzeko konpromisoa hartu du, baita monumentuaren inguruan dauden harrespilak zati batean estaltzen dituen landaretza garbitzeko, eta garbiketaren kontrol arkeologikoa egiteko konpromisoa. Modu berean, Aranzadi Lesakako Udalarari udalerrian dagoen ondare arkeologikoari eta naturalari buruzko aholkua emanen dio.

Jorge Oteiza Fundazio Museoak, berriz, galaren inguruan argitara emanen dituen inprimaki eta argitalpenetan Sociedad de Ciencias Aranzadi Zientzi Elkartek eta Lesakako Udalak eman duten la-



## Arkupe elkarteko paleta-goma txapelketaren finala jokatu zen azaroaren 5ean

Arkupe elkarteak antolatutako emakumezkoen paleta-goma txapelketaren azken partidak azaroaren 5ean jokatu ziren udal pilotalekuan. Lehenik, hirugarren posturako lehiari Nati eta Mirentxuk 30 eta 23 irabazi zieten Asun eta Susanari. Finala orekatuagoa joan zen. Hainbat berdinketen ondoren, Lizarrako Amaia eta Maitek 30 eta 27 irabazi zieten Lizarrako Mertxe eta Anoetako Maiderreri. Hamahiru bikotek jokatu dute aurtengo txapelketa.

guntzaren berri grafikoa emanen du. Aita Donostiari eskainitako monumentuari buruzko erakusketa Donostiara eramatea ere bultzatuko du 2006an Fundazioak eta Lesakako Udalak antolatuko dituen bisitaldi-tara joanen diren taldeei dohainik sartzen uzteko konpromisoa hartzen du.

Lesakako Udalak, bere aldetik, monu-

mentuaren inguruz inguru zerrakura egingen du, eta sarbide nagusiaren inguruan zerrakura berria paratuko du. Oteizaren monumentura ailegatzeko bidea ere behar bezala seinalizatuko du Udalak. Agiñarako pistaren sarreran dagoen edukiontzia bertze nonbait paratuko du Udalaketa ingurunean zuhamuxkak eta azien-dak kaperaren barnean

sor ditzakeen hondakin organikoak aldiak garbitzeko konpromisoa hartzen du.

Udala, Aranzadi Zientzi Elkartek egiten duen lana aintzat hartuta, 2006ko urtarrilaren 1etik aitzin Aranzadi Elkarteko bazkide egingen da. Udalak, azkenik, monumentuari buruzko programa didaktiko bat egin eta bisitaldi gidatuak antolatuko ditu.

FLASH

### Kottori omena

Herrian ere, Soriako kartzelan hildako Kotto omentzeko kontzentrazioak eta bertze ekitaldiak egin dira. Udalak, beratarraren heriotza deitoraru eta bere atsekabea adierazi zuen, presoek eskubideak errespetatzeko eskatzeaz gain.

### Santa Zezilia Eguna

Feria eguna izanen da azaroko kultur ekitaldi nagusia, baina musikariek Santa Zezilia eguna ere ospatuko dute. Honela, azaroaren 22an, Santa Zezilia eguna ospatzeko Musika Bandak kontzertua eskainiko du pleno aretoan 20:00etan. Azaroaren 23an, Musika Eskolaren eskutik kontzertua izanen da 17:00etan eta ondoren kalejira. Azaroaren 26an, 18:00etatik aitzinera kontzertu-kalejira antolatuko da.

### Baserritarren Jantziak ikusgai

Azaroaren 21etik abenduaren 10era, Tantiur-mairu dantza taldeak Baserritarren jantziak izeneko erakusketa egingen du Beti Gazten, astelehenetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

### X. Rallysprint azaroaren 19an

Larunbat honetan, azaroaren 19an, egingen da Eguzki Eskuderiak hamargarren aldiz antolatutako Lesakako Herria Rallysprint auto laisterketa.

**XATURETXEA**  
ZAHAR  
JATETXEA  
948 637 027 - LESAKA

**GOZZALDO**  
JANTZIA  
948 637 027 - LESAKA

**IRU BIDE**  
948 637 127  
LESAKA

**J. RAMOS**  
zolak akutzilatuta eta barnizatzen ditudu  
948 637 172 LESAKA - Solokua 637 61023

## ETXALAR

# Martxan da Larraburuko 14. mus eta partxis txapelketa

Arrakasta polita izan dute aurtengo Kultur Egunek

Joseba eta Nerea

Hamalaugarren urtez antolatu dute Larraburuko jubilatuek mus eta partxis lehiaketa. 1991. urtean hasi ziren eta ordutik ez dute behin ere hutsik egin. Lehiaketa hau da urteko ekitaldien zerrendan arrakasta gehien izaten duena. Jubilatuek gehien biltsen dituenak. Joan den azaroaren 6an hasi ziren. 13 bikote ari dira parte hartzen, bi taldeetan banatuta. Igandetan jokatzeko partidak eta abenduaren 18rarte luzatuko dute txapelketa.

### Partxisean emakumeak bakarrik

Mus txapelketako partehartzaile guztiak gizonak badira, partxisean emakumeak ari dira. Emakumeak bakarrik. Jabier Indaburu antolatzaileak erran digunez ez dago arrazoigaririk hori azaltzeko. Hasi zirenetik horrela izan da kasik beti. Noizbait



ANDAMIA, NERIA

Goi mallako kirolari buruzko mahainguruarekin hasi ziren aurtengo Kultur Egunak. Herritar aunitz bildu zen Kultur Etxean.

gizonen bat aritu da partxisean, bikotea osatzeko beharra zegoelako. Emakumeak berriz, inoiz ez dira musean aritu. Aurtengo partxis txapelketan 8 bikotek eman dute izena, iaz baino bi gehiagok. Hauek ere igandetan jokatzeko partidak eta abenduaren 18rarte luzatuko dute txapelketa. Animo partehartzaile guztiak eta zorte on!

### Jende franko Kultur egunetan

Jende aunitzek parte hartu du aurtengo Kultur Egunen barrenean antolatutako ekitaldietan. Euskara Batzordeak balorazio positiboa egin du. Mahaingurua izan zen jendearen arreta gehien biztu zuen ekitaldia. Lehenbizikoa izanik, herritar parrasta hurbildu zen Kultur Etxera Donato Larretxea eta

Inaxio Errandonea kirolari profesionalen ibilerak aditzera. Aitor Arotzena gidari zutela, solasaldi interesgarria izan zen kirol munduaren egoeraren gainean. Ikustera bildutakoek ere parte hartu zuten mahainguruan. Haurrei eskainitako bi ekitaldiak ere arrakastatsuak izan ziren, ipuin kontalaria eta altxoraren bila jokoak. Azkenik, txaranga-

### Uso sasoia eta uso-jateak

Usategietan ez dute nahi adina mugimenta izan, ez usazaleek ez ehizturiek. Kopuru hagitik itikia hartu dute oraindik. Ez da aunitz falta sasoia akabatzen eta martxa honetan segituz gero bederen, berriz ere balorazio txarra egin beharko dute. Edozein moduz, usasoiaren aitzakian herriko leku aunitzetan egin dira uso-jateak. Aitzakia ederra da koadrilarekin edo familiarekin otordu eder eta egiteko. Larraburuko jubilatuek adibidez, urteroko ohitura segituz, urriaren 30ean bildu ziren Anttonion bazkaltzera. 50 bat lagun juntatu ziren eta aurre, bideo ikustakia izan zuten. Arkupeak elkarrekin sortu zenetik gaur arte omendu dituzten adineko guztiak ikusi zituzten bideoan.

afaria aipatuko dugu, Kuku txarangaren eskutik egin zena. Adin guzietako jendea bildu zen Herriko Ostatuan txaranga honen aitzakian kantuan aritzera. Berandurarte luzatu zen besta eta giro ederrak ez zuten hutsik egin.

**HERRIKO**  
USTATE - JATEKIA

Herriko Ustategia, s. 11 • 48111 • 11111111  
Herriko Ustategia, s. 11 • 48111 • 11111111

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko Istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

**SAROB**  
okindegia

BANDERS pentsuak

Tel: 948 630 899  
Estegora, 41  
**BERA**

## ARANTZA

# Hameka ardi-gazta aurkeztu ziren Baserritarren Eguneko lehiaketan

Postu guttiagorekin, jendetsua izan da X. baserritarren eguna

## Nerea ALTZURI

Udazkeneko kulturaldia ere bukatu da eta zapora ona gelditu zaie antolatzaileei. Dantza saloa, antzerkia, mus txapelketak eta bertze iragan dira aurtien ere. Dudarik gabe, dagoeneko ezaguna bilakatu den eguna, azaroaren 1ean, Ekaitza elkarteak antolatzen duen baserritarren eguna da. Aurtien, hamargarren edizioa izan da eta gero eta lagun gehiago erakarzen ditu. Frontoi bazterrak nahiz barrenaidea jendez gainezka egon ziren goizean. Bertze urteetan baino baserritarren postu guttiago izan zen baina herritarrez gainera, herritar ez zirenen multzoa handia izan zen. Azoka bilakaturiko frontoia jendez gainezka egon zen. Barazkiak, goxokiak, bo-

tika naturalak, eskulak, taloak, kamisetak, loreak, etxeko tresnak, aziendak erakusgai zein salgai egon ziren. Ahuntza Triki eskolakoei goiza alaitu zuten eta Ekaitza elkarteak paratutako ostatuan ere, janedariak eskaini ziren. Aurtien, estreiniko aldiz ardi gazta lehiaketa egin zen. Egia erran, lehenengo aldia izateko, arrakastatsua izan da ekimena, hameka gazta aurkeztu baitziren. Sei lagunekin osotutako epaimahaia izan zen: Bibiana Mitxelena, Sagrario Iparragirre, Gregorio Mitxelena, Jose Luis Iparragirre, Kallio Leiza eta Belen Mutuberria.

100 euroko lehenengo saria, Senberroko gaztak eraman zuen; bigarren postua, Bordalarreko Simonen-



ARAZOAK: XAN HARRIAGUE

Postuetan parte hartu zutenak: Barrazabal, Exkerrenekoborda, Osifaldea, Marinenborda, Urdinborda, Simonenborda, Martixenea, Senberro, Serorenborda, Zerrado, Luis Madariaga, Felix Apezetxea, Bortzak Bat kooperatiba, Adaxka, Pabloenea, Ilargi eta Tokionako Ikasleak. Azienden erakusketan: Txanekoborda, Larrainkoborda, Xabier Mayordomo, Fermin Elizondo, Ximonea, Martinkoborda eta Mendialde.

bordakoak lortu zuen eta hirugarren gaztarik onena, Laraburukobordakoa izan zen.

Bertze gazta partaldeak: Morenborda,

Otsarra, Tuanekoborda, Martinkoborda, Martixenekoborda, Simonenborda (Eguzkialdea), Oskoz-enea eta Serorinborda izan ziren.

Ondotik, bertako produktuekin osotutako zarea zozketatu zen eta Simonenbordako Sekundinak eraman zuen saria.





**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztusia**  
**Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest**

Alkaiaga Ind. • Banarta, 8 - 23. pabiloia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550



**ALBERGEA**  
**JATETXEA**

**ATERPE**  
ALBERGIA

**ARANTZA** Tel: 948 634 179



bortirudi@telefonica.net

• KARTELAK • KAMISETAK • BISERAK • TRUKEROAK (baki, azoka, txistu, jomanketa)  
• FOTOKOPIA DIGITALAK • KOLORETIAK • TAURU BELTZEAN • PLANDAK  
• ENKILADERNAZIOAK • PLASTIFIKAZIOAK • PEPEPTEGIA • BULEGO MATERIALA  
• DISEINU GRAFIKOA • LOGOTIPOAK • ERROTULOAK • INPRINTA

Eztegu, 26 • Eskuintzean Behea D • BERA • Tel-Fax: 948 631 521

## BORTZIRIAK

# N-121A errepidea moldatzeko proposamen bateratua eskatu du herri mugimenduak

Iruñean eragiteko ekimenak elkarlanean bideratu behar direla uste dute

ttipi-Itapa

Urriaren 28an Bortziritako herri mugimenduetako hautetsiek prentsaurrekoa deitu zuten Etxalarren, N-121A errepideaz solasteko. Historia egin ondotik, eskualdeko talde eta alderdi politiko guztien artean lan egiteko premia azpimarratu zuen Patxiku Irisarri. «Hainbat talde aritu gara hobekuntzak eskatzen, soilik guztiok batera aritu garenean lortu dugu Iruñean kasu egitea. 1990ean eskualdeko udal ia guztiok onartu zuten Belateko tunelaren proiektua gauzatzeko mozioa eta orduan lortu zen lana egitea».

Herri mugimendua osatzen duten taldeek hiru ardatz nagusi zehaztu zituzten: lehenik,



Juan Mari Arburua, Josu Goia, Patxiku Irisarri eta Andoni Sarasola, Etxalarren urriaren 28an egindako prentsaurrekoan.

Nafarroako Gobernua-ri konpromisoa aspaldian hartua dutela eta «beingoan hitza bete eta lehenbailehen obrak bukatzea» eskatu diote.

«Ekimen alderdikolak» bultzatzen dituztenei-berri, «errepidea» bultzatzeko herri mugimendua ez dela gaur goizekoa eta Iruñean

eragin nahi badugu, ahalik eta ekimen zabal eta indartsuenak elkarlanean eta modu bateratuan bideratu behar ditugula» erran zieten.

Ezkerretik eta abertzaletasunetik inguru-menarekin erakutsi duten begirunean oinarritu nahi dute beraien jarduna: «Lurraldea antolatzeke herrien arteko oreka izan behar da gure irizpide nagusia».

Josu Goiak gogoratu zuenez, «orain arte, PNV, HB edo independenteak izan, alkate guztiak bildu eta ildo berean joan dira Nafarroako Gobernura eta Gipuzkoako Diputaziora eta gauza batzuk lortu dira. Orain, Beran, nahiz eta koalizioa egin EA eta Aralarrek, bakoitzak bere aterabidea proposatzen du. Hori ez da herriaren alde lan egitea, hori politikakeria da. Denak bildu behar dugu eta ez bakoitzak bere alde-lik gauzak egin».

**edredoi nordikoak • edredoi-azal nordikoak • mantak • maindireak**  
**Ohe estalkiak • mantelak • albornoak • toailak • kuxinak**

**EDREDOI eta**  
**EDREDOI-AZAL**  
**NORDIKOETAN**  
**ESPEZIALIZATUAK**

Tel: 948 230 634

Tafalla, 13 · IRUÑEA



1951tik

**Casa Cambra**  
 lantzeria-etxea

## DONEZTEBE

# Eguraldi txarrarekin haurrek jostatzeko lekua eskatu dute

Gaur egungo parkeen zola egokitzea ere nahi dute gurasoek

## ttipi-ttapa

Eguraldi txarra egiten duenean seme-ala-bekin jolasteko leku egoki eta estalia eskatuz sinadura bilketa kanpaina hasi dute herriko zenbait gurasok. Gaur egun Intzarkardiko parkea eta Bear-Zana pilotalekua dira gehien erabiltzen direnak, baina eguraldi onarekin bakarrik baliatzen ahal dira. Euria edo hotz handia egiten duenean, elizako gorapea erabili behar izaten da, baina ez da batere eroso eta karrika ondoan dagoenez, arriskutsua da trafikoarengatik. Sinadura bilketa kanpaina honek ongi egokitutako lokal itxia eskatzen du, 17etatik 19:30ak bitarteko denbora pasatzeko. Bertze aldetik, gaur egun herrian dauden hiru parkeen zola Europako araudira egokitzea ere eskatzen dute, istripu larrik gerta ez dadin. Zola, porlana baino goxoagoa den material berezi batekin estali beharko litzateke.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

## Lan istripuen kontrako elkarretaratzea egin zen

ELA, LAB, ESK, CGT eta STEE-EILAS sindikatuek elkarretaratzea deitu zuten azaroaren 7an Doneztebeko enplegu bulegoaren atarian, «Gure osasunarekin jokatzeko dute. Nahikoa da» lemapean. Azaroaren 3an, Dantxarinen eta Igantzin lan istripuetan hil ziren 19 urteko errumaniarra eta 59 urteko portugaldarraren heriotzak salatu nahi zituzten. Hildakoak etorkinak izatea ez da kasualitatea sindikatuen ustez. Aurten 22 lagun hil dira Nafarroan lanean ari zirela. Iaz hildakoekin alderatuta %275 inguruko igoera izan da.

## Errekako Eguberrietako saskia

Bertze urtetan bezala, Erreka kirol elkarte-kideek Eguberrietako saski paregabea osatu dute. Honen zozketa abenduaren 24an izanen da, igandean, 13:00etan elkarrean egoitzan. Horrela dago

osatua saskia: mendi bizikleta, mikrouhin labea, telebista, likuadora, sandwichera, argazki makina, turroiak, urdaiazpikoa, ardoa, likoreak... eta bertze aunitz gauza.

Saski hau egiteko komertzioen laguntza ezinbertzekoa da. Aurten, urtero bezala, hagitza on

izan da hauen jarrera. Erreka Kirol Elkarteak bere esker ona adierazi nahi die lagundu duten guztiei. Eguberrietako saskia hagitza garrantzitsua da elkarteak urte osoan egiten dituen jarduerak finantzatzeko. Boletoa komertzioetan salgai daude dagoeneko.

## FLASH

## Portland ikustera

Erreka elkarteak bere eskubaloi taldeetan jokatzen duten gazteentzat autobusa antolatu du azaroaren 19rako, Portland San Antonio-Cangas partidua ikusteko. Sarrerak San Antonio taldeak eman dizkio Errekari, eskubaloi bultzatzeko egiten ari diren kanpainaren barruan. Autobusa, berri, Errekak jarriko du.

## Futbol zelaiaren konponketaz

Eskolako futbol zelaiaren moldaketaz eztabaida sortu zen udal batzarrean. EAko Ramon Etxebesteren erranetan, bertze modu batera egin beharko litzateke. «Lehentasunak ezarri behar dira eskolan eta gimnasioaren egoera penagarria ikusita hura moldatu behar zen lehenik. Gainera, kontuan hartuz subentziorik ez dela hartu dirua beharrezkoena den lekuan erabili behar da». Alfredo Zugramurdik erantzun zion «berak eskatu zuela futbol zelai moldatzeko memoria». Dirulaguntzei dagokienez, «euro bat ez lortzearen arrazoia bere negoziatio ahalmenez eskasa zela» erran zion Zugarramurdik Etxebesteri.



**BORTZIRI**  
UNSION ANAIAK

luzalderako aitzonak

**ERAKUSKETA**

Bereau etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 266 • 607 226 891

Faxa: 948 637 511

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Elbaritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarnitasun planak eta aurrekontuak

LESAKA: Bititio, 71 beheko

Tel.: 948 637 050

Faxa: 948 637 404

BURLATA: La Viña, 4 • Tel.: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

## ITUREN

# Kultur Egunak prestatu ditu Ibintzak abenduako lehen astebururako

Abenduaren 2an Jaione Olazabal eta Jonek kantaldia eskainiko dute

Arkaitz MINDEGIA

Abenduak zubia ailegatzean Kultur Egunak izaten dira Iturenen, Ibitza kultur taldeak antolatuta. Aurtengoan, abenduaren 2 eta 3an izanen dira. Ortziralarratean talo jatea egingen da eta gero kantaldia Jaione Olazabal eta Jonekin. Larunbatean, abenduaren 3an, goizeko 11ak aldera, Herriko Etxeko Ganbaran herriko haur txikiek tailerra edo eskulanak izanen dituzte. Bitartean, kokorragoek herriko plazanginkana, herri kirolak eta bertze jokoak izanen dituzte. Eguerdian, haurren bazkaria izanen da. Arratsaldean, Gorriri eta bere animaliak etorriko dira, haurrak gozarazteko. Tenore berean, bigarren



Arkaitz Mindegia

Abenduaren 3an, haur txikiek tailerra eta eskulanak izanen dituzte. Eguerdian, berriz, bazkaria izanen dute. Haurrak ez direnentzat ere hainbat ekitaldi eskainiko dituzte Kultur Eguneak.

mus txapelketa jokatu-koda. Gauetz, urtero bezala, Herriko Ostatuan afaria izanen da. Ondotik kantuan aritzeko eta besta ederra egite-

ko aukera izanen da, nola ez. Herriko Etxeko Ganbaran erakusketa bat ere zabalduko da Kultur Eguneak irauten duten bitartean.

## Ehiza denboraldia gaizki

Aurtengo ehiza denboraldia ez da oso ona izan, leku guztietan bezala. Jendea haserre zegoen, oporrak eskatu eta uso bandorik ez zelako pasatzen. Beste urteekin konparatuz eguraldi ederra egin zuen, baina halere usorik pasatzen ez. Normalki, Pilarikako zubia eta gero uso pasa akitzen hasten da, baina aurten urri bukaeran eta azaro hasieran uso bandoak ikusten ziren oraindik. Orain, herriko ehiztariak oilagor eta basurde ehizan aritzeko denboraldia daukate eta alpatu digutenez, basurdeak hiltzen hasiak dira dagoeneko.

## ISTRIPUAK

# Zubieta eta Lesakako bi gazte hil dira errepedeko istripuetan

ttipi-ttapa

Errepedeak berri ilunak utzi zituen urri honddarrean eta azaro hasieran. Urriaren 29an, Asier Telletxea Telletxea, 25 urteko zubieta hil zen moto istripuan. Ituren eta Elgorriaga artean erori eta Doneztebeko osasun zentrora eraman zuten. Larritasunaz oharuta anbulantzia iruñeko ospitalera bidali zuten, baina bidean hil zen.

Azaroaren 8an, berriz, Maitane Irigoien Fagoaga, 18 urteko lesakarra hil zen Sunbilla, berak gidatzen zuen autoa kamioi batek kolpatu zuenean. Maitane haundun zegoen eta umea ere hil egin zen.

**Lanchas**  
 PARKETAK - TARIMAK  
 KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA  
 ESTALDURA OROKORRAK  
 Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 404 781

**GAZTANDEGIA**  
**Lizun** Etxeko Ardi Gazta  
 Peteneko bidea - Tfnoa: 948 450 862 - SUNBILLA

**ttipi ttapa**  
 (0034) 948635458

**LABE ZAK**  
 948631076 • BERA

**BOBEKO**  
 Lore eta landareak  
 Frein auzoa - LESAKA  
 Tfnoa: 948 637826

**ATM S.A.**  
  
 AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.  
 Igantziko Bentak  
 948 63 74 11

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraio zintak eta mahaiak.
- Mantenu rodilloak.

  
**Albisu hertz** klinika  
 Iker Albisu Altolagirre  
 Odontologia Medikua - Kol. Zela 448  
 948 631 631  
 Iparralde 3 - 2.ezk 31780 Bera

## GOIZUETA

# Dena prest hilaren 26an eginen den Feria egunerako

Urrutinea eta Amaia tabernatan salgai daude bazkarirako txartelak

Esteban AROTZENA

Azken bi hilabete hauetan antolakuntza taldea egiten ari den lanari esker, azaroaren azken larunbatean eginen den feriarekin bigarren ediziorako dena prest dagoela aurreratu daiteke dagoeneko. Eguraldia da herritar hauen esku ez dagoen gauza bakarra, baina txarra eginen balu ere, altematik prestaturik daude eta ez omen da inolako arazorik izanen.

Iazko salmenta postu eta azienda, eskulan eta mota ezberdineko erakusketaz gain, hainbat ekitaldi bitxi antolatu dira aurten feria egu-

nerako. Goizeko 10etan irekiko da ofizialki iazkoa bezain ustegabeakoa ez, baina askoz zaratatsuagoa izanen den ekitaldiarekin. Handik aurrera, trikitixa soinu artean, tolaean sagar txikitzea edo iratze meta egitea izanen dute ikuskizun plazan elkartzen direnek. 14:30etan izanen da herri bazkaria eta honetarako txartelak Urrutinea eta Amaia tabernatan daude salgai. 14 urtetik beharokoentzat 14 euro balioko du bazkariak eta gainekoentzat 20 euro.

Udala, Umore Ona eta Goizueta Bizirik taldeaz gain, Zaharren El-

karteia eta Gazte Asanblada ere buru-belarri sartu dira aurten antolakuntzan. Azkeneko hauek parrandarako ekitaldiak eratu dituzte naturala den bezala: bazkal ondorengo fandango lehiaketa, ilunabarrean herriratuko den Hernaniko Urumea txaranga edo gaueko Gaztetxeko kontzertua, esate baterako.

## Kontzertua larunbatean

Larunbat honetan, azaroaren 19an, Nerea Erbiti, Nerea Urbizu eta Iñigo Agirre musikari ek kontzertua eskainiko dute 19:00etan Ganbaran.



AIZAKOIA, MATINE APEZETXEA

Nafarroako alderdi espainolistik eta auzitegiak lortu dute azkenean Herriko Etxeko balkoitik ikurriña jeistea. Azaroaren 4az geroztik udaletxe aurreko mastiletan dago herrikoa eta Nafarroakoarekin batera, plazako lekuri ederrean.



AIZAKOIA, MIREN TERREZ URTZI

Maria Angeles eta Xatur Salaberriak irabazi zuten Umore Ona elkarteko truk txapelketa, Fernando «Polo» eta Asier «Pinpa»ren kontrako final handia irabazi ondoren.

## ARESO

# Elizetxea erosi zuen herritar batek

Erdia elizarena da eta pisuak egingo dira

Juana Mari SAIZAR

Herritar batek Elizetxea erosi zuen, Iruñeko Gotzaitegiarekin akordio batera allegatu ondotik. Bere izenak esaten duen bezela apaiz etxea da. Akordioa, etxea berri eta erdia berarentzat gertzea eta beste erdia elizarentzat izatea zen. Katekesia, bilerak eta

beste ekitaldiak egiteko solairu bat egokitu behar zuen eta beste bi solairuak, paretak errebokatuta eta hutsak uztea zen.

Etxea handia izanik, beste bi solairuetan, bizitzeko pisuak egitea erabaki zuen parrokiak. Gastuentzat, mailegu bat hartu da eta errentarekin bueltatzea pentsatu da. Alokatzeko ga-

raian herritarrek izango dute lehentasuna. Sotoko lokalean, bi gela handi eta komona egin dira eta laister margotzeaz bukatuko dute. Birtartean, katekesia martxan da eta bost talde dira aurtegoan. Txikiak Jaionek hartu ditu, Jaunartze ondorengoak Ana Mari eta beste hiru taldeak, Jesus Mari apaizak hartu ditu.



AIZAKOIA, JUANA MARI

Aresoko parkea pintatzeaz bukatu dute baina lurrak, berde kolorez pintatzea falta da. Udal langilearen laguntza behar dute baina, hau, oportetean dago eta bueltatzerakoan, lanean hasiko dira babesturiko programaren peoiak.





gehigarria  
txegintza



**abartan**  
CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA  
ateak • leihoak • kontraleihoak  
manparak  
zeramikak (fabrikako prezioetan)  
kontsumo gutxiako kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, baje • 31700 ELIZONDO  
Tel. 948 561 152 • 667 294 025 • 986 970 726  
matxan@abartan.es

**arteka**  
arquitectos técnicos

Juan Mari Aleman - Patxi Valer

Obra zuzendaritzak  
Lur neurketak...

Tfn. 948 560 910  
Fax: 948 452 434

**ALEMAN**  
zerrategia, SL

- Teilaturako estrukturak (douglas pinua, haritza...)
- Tarima.
- Portxeak tamaina egokian.

Frantziako errep. zig • ERRATZU • Tfnoa: 948 453173

**Angel TRANTXE**  
elektrizista

Instalazio elektrikoak  
Konponketak

Tfnoa.: 948 452 246  
Mug.: 679 454 113  
ELIZONDO

## Parket flotatzailea

# Merkea eta instalatzeko erraza

### Zer da parket flotatzailea?

Egurrezko piezekin osatzen da eta normalean xafra luzeak izaten dira. Pieza hauek, teknologia berezia erabiliz tailer espezializatuetan itsasten eta berrizatzen dira. Ez dira lurrean ez itsasten ezta iltzatzen ere. Ikusten ez den aldea, azpitik geratzen dena, neoprenozko mintz edo geruza baten gainean jartzen da. Hori dela eta, "flotatzen" gelditzen da, eta aldi berean, isolatzaile funtzioa egiten du. Beste tronadura edo tarima batzuekin konparatuz, parketa jartzeak ez du lan handirik eskatzen eta etxea bera ez da osorik hustu beharrik obra egiteko. Konparazioan, horixe da duen abaintalarik nagusiena.

Era berean, edozein zoletan erabil daiteke, baita lehenagoko zolaren gainean ere. Hala ere, baldintza batzuk eskatzen ditu: 20 graduko tenperatura izatea eta gela ongi aireztatua egotea, hezetasunaren lurrina likido bihurtu eta parketaren gainera eror ez dadin. Jarri ondotik gelako zola 3-4 zentimetro altuago izanen dugu. Beraz, parket flotatzailea aurreko zola kendu gabe jartzen bada, parketa jarri ez den gelak baxuago geldituko dira. Egurrezko xafren azpian jartzen den neoprenozko geruzak isolatzaile funtzioa betetzen badu ere, hezetasun handia dagoen etxebizitzaren zatietan parket flotatzailek ez jartzea gomendatzen da, ura eta egurra bateraezinak baitira.

Hori dela eta, ez da gomendatzen bainugela eta sukaldeetan jartzea. Hala-

koetan, komunontzi, bidet, konketa eta dutxaren ondoan tapizak jartzea komeni da, baita harraskaren ondoan dagoen zatian ere.

### Zer egin ongi mantentzeko

- Xurgagailuaz garbitzea komenida. Izan ere, era horretan zikinkeria partikulak arrastatu gabe jasotzen dira, lixa efektua ekidinez. Xurgagailu gehienek beren osagarrien artean parketak garbitzeko osagarri berezia izaten dute.
- Bertzela, bereziak diren trapu edo mopa hezetuak erabiltzea komeni da. Parketaren iraunkortasuna, neurri handi batean, bernizaren baitan dago. Beraz, bernizak egoera onean iraun behar du. Horrexegatik, erabiltzen den produktua ahalik eta leunena izatea komeni da, korrosioa ekiditeko.
- Profesional batzuek garbitzeko ura eta ozpina nahastea gomendatzen dute; beste batzuek diote hobe dela ura erabiltzea, bertzerik gabe. Edozein modutan, egoera onean mantentzeko gehiegizko ura ekidin behar da.
- 10 urtean behin parketaren zorua leuntzea komeni da. Horrela, zoruari 30 urteko bizi-bermea ematen zaio.
- Marradura posibleak ekiditeko aulkien, mahaien eta antzekoen hanketan feltrozko takoak jartzea komeni da. Kasu eman altzariak arrastaka ibiltzean edota oinetakoen zikinekin. Etxebizitzaren sarreran oin-zatar bat edukitzea ezinbestekoa da.





**Bi erako parket flotatzaileak: egur naturalezkoak edo melaminazkoak**

Bi erako zolak daude: egur naturalezko parket flotatzaileak eta laminak melaminazko erretxinaz estaliak dituztenak. Dekorazioari dagokionez, euren arteko ezberdintasuna honetan datza: melaminazkoak kolore eta apaingarrietan aukera gehiago ematen ditu; egur naturalezkoak, berriz, ez du kolore aldaketarik onartzen eta aukeratutako egur motara mugatu behar da.

**Egur naturaleko parket flotatzailea**

- Materialak eta kalitatea. 2 edo 4 milimetro lodiera duten egur noblezko hiru panelez osatuta dago, euren artean kolatuak eta, gainera, babesten duten hainbat berniz geruza ditu egurra higagaitzago bihurtzeko. Abantailen artean, kalitate hobea eta iraupen luzeagoa.
- Egurraren akaberak. Distiragabe edo distirarekin berniza daiteke. Azken urte honetan distirarekin bernizatzen da gehienetan hutsegiteak eta urradurak hobekien ezkututzen dituen baita.
- Prezioak. Garestienen artean egur tro-

pikala nagusitzen da. 35 euro ordaintzen da metro kuadroa hezetasunari hobekien eusten diona delako. Merkeen artean haritz, pago eta gerezi xafalak daude. Metro kuadroa 20 euro eta hortik aurrera ordaintzen da.

**Parket flotatzaile laminatua**

- Materialak eta kalitatea. Egurrezko taula edo lamina baten gainean argazki erreprodukzio bat itsasten da, estilo ezberdineko apaindurak ere onartzen ditu, gelari eman nahi zaion erabilerraren arabera. Erreprodukzio hori melamina gardenezko hainbat erretxina geruzaz estalita dago, higadurari, talkei, zigarroen erredurei eta eguzkiari arras ongi eusten diona. Taula bakoitzak melaminazko bi edo hiru lamina edo taula txikiz osatuta egon daiteke.
- Prezioak. Zenbat eta erretxina geruza gehiago izan eta taula lodiagoa izan, parket hori orduan eta garestiago izanen da metro kuadroko, hala ere, prezioa aukeratutako akaberaren arabera ere izanen da (marrazkia...). 4 milimetroko erretxina duten taulak metro kuadroko 33 eurotan eros daitezke eta 2 milimetrokoak metro kuadroko 20 eurotan.



**INSTALACIONES ARKALE c.b.**

- Gas instalazioak
- Iturgintza orokorrean
- Kalefakzioa eta Aire egokitua
- Mantenu lanak
- Zintzilikatuta egiten diren lanak

Tel: 610 509 177 • SUNBILLA

**AGUSTIN PORTU aroztegia**

Ameltziaga - Kaule auzoa • BERA  
Tfnoa: 948 631 058 • 670 422316

**AA ASTIZ ANAIAK zurgindegia**

zurgintza lanak orokorrean

Aldude etorbidea, 5 • ELIZONDO  
Tfnoa: 699325449 • 948 580886

**Arki anak SL**

ARANTXA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitektoa  
JOSEBA CIAURRIZ IRAIZOZ Arkitekto Teknikoa

- ETXEBIZITZA PROIEKTUAK
- URBANIZAZIO PROIEKTUAK
- ETXE BERRITZEAK
- NABEAK
- KONTSULTAK
- LUR NEURKETAK
- OBRA ZUZENDARITZAK

Tfnoa: 948 58 19 31 e-posta: arantxoci@terra.es  
Santiago, 55 ELIZONDO

# SUNBILLAN ETXEBIZITZAK SALGAI

  
**BELURRA**  
Promociones y Construcciones

2 edo 3 logeletako  
etxebizitzak,  
atikoak,  
garajeak eta bajearak.



• IGERILEKUA,  
BIDASOA ERREKA  
ETA BIDEGORRIAREN  
ONDOAN

- Irunetik 20 minutura
- Iruñeatik 30 minutura

Lekueder karrikan **948 450 188 - 638 845 560**



- Eraikuntza lanak orokorrean
- Harria, Termoarzilla eta egurrarekin egindako etxeak, neguan giro epela eta udan frexkoa mantetzeko.
- Arkitektuak bideratzen ditugu



**BIKAIN ERAIKUNTZAK • 652 764 613**





TEILAK



ALMACO  
BAZTAN



TRISO-SUPER 9



SUKALDEAK



VELUX-ak



ZERAMIKAK

**ACTIS**  
*aislamiento y bienestar*

**Hergóm**

- Etxegintza eta saneamendu materialak
- Teilatuak • Paretak
- Kapa anitzeko isolatzaile termo-isladatzaile aukera

948 580 104 • 948 580 366 • ELIZONDO



Muebles  
**Telletxea**  
*Bizi guztirako mobleak*

Rosa Seminario 12 • Tel: 948 450 258 - 948 451 811 • DONEZTEBE • [telletxea@enlac.es](mailto:telletxea@enlac.es)



## BERTIZARANA TAILERRAK

ESTRUKTURA METALIKOAK  
ATEENDAKO MEKANISMOAK - ATEAK  
BARANDA ETA FORJA ARTISTIKOAK

Tel-Faxa: 948 592243 • NARBARTE

## DONEZTEBE

ERAIKUNTZA MAKINA ETA  
ZERBITZUEN ALOKARJIA

- Kamioi grua trilatua egiteko eta moldatzeko
- Materialen garbaitze
- Mailu, elektrizitate sorgailuak
- andamioak kompresorak...

Lertzakoa Inflex - Tel: 948 451 793 / 659 702 604 - DONEZTEBE

## Esteban Irisarri

Industriako ingeniari teknikoa  
Goi-tentsioko eta behe-tentsioko  
Proiektu Elektrikoak

Gososta etxea • 31760 ETXALAR  
Tel. 637 774836

## JAGOBA IRISARRI ELIZAGOIEN

iturgintza  
lanak

659 401 555

Lakatenekoborda  
ETXALAR

Argiak eta lanparak

# Argiztatu etxea diseinu itxura emanez



### Etxeari bizia ematen dioten lanparak

Argi eta itzalen arteko kontrasteek itxura berria ematen diote etxeari. Eta efektu hori nabarmentzen laguntzen dute lanpara berrien diseinuek, orain arte ikusten ez ziren itxura, neurri eta koloreak erabiliz, eta lanparen izaera praktikoari izaera dekoratzailea ere gehituz.


Batetik estilo minimalista duten lanparak ditugu, beira eta altzairuzko mundu batera eramaten gaituztenak. Betiko lanpara klasikoak zokoratu eta itxura aerodinamikoak duten kristal eta letoizko lanparek hartu dute haien lekua.

Argien distirek luxu eta fantasiazko mundu batera garraiatuko gaituzte. Pieza borobilak edo espiralean osatuak, metalizatuak edo nakarezkoak... etxeari dotorezia ematen dioten piezak azken batean. Beharbada, kristalak ematen duen glamourra atseginago izanen duzu. Hala bada, Bohemiako kristalarekin eginak eta sabaitik zintzilak dauden bolatxoek osatutako arte-lanek maiteminduko zaituzte, forma obalatuak edo karratuak osatuz. Holakoekin, %100ean gardenak diren lanparen edertasuna deskubrituko duzu.

Ausartenentzat poliamidazko hariekin egindako modeloak daude, itxura obalatuak, magiaz betetako argia zabaltzen dutenak.

Gainerakoan, gustoko duzuna sinpletasuna baldin bada, Asia ekialdeko itxura lasaietan inspiratutako lanparak dituzu aukeran, paper serigrafiatuzko bola handiak. Lanpara hauek mistizismo eta lasaitasuna ematen diote etxeko xokorik lasaienei. Zutikako lanparak ere badituzu estilo honetakoak, etxeko xokoei argi xua-bea eta goxoa emateko ezin aproposago-

rik.



## COLCHONES ATSEDEN

# Atsedena diarekin amestea **ATSEDE**nekin amestea da

Koltxoi egoki batek pertsonaren bizi kalitatea hobetzen du, eta horregatik, gure atsedena diako beharrak betetzen dituena aukeratzea garrantzitsua da oso.

**Colchones Atsedena** en koltxoirik hoberena aukeratzeko aholkua emanen dizugu; malgukizko koltxoiak koltxoi-mistoak (látex eta malgukizkoak), látex, polieter edota viscolaxtic.

**Atsedena** en koltxoigileak gara aspalditik eta gure bezeroen beharrak ongi ezagutzen ditugu.

### BERME OSOKO PRODUKTUAK

Gure bizitzaren herena lo egiten pasatzen dugunez, koltxoi egokia aukeratzea uste duguna baino garrantzitsuagoa da. Koltxoi on batek gure bizi kalitatea hobetzen du inolako zalantzarik gabe.

**Colchones Atsedena** en berme osoa duten produktuak eskaintzen ditugu, kalitate handiko lehengaiekin eginak, teknologiarik aurreratuenekin, kualifikazio handiko giza kapitalaren babesarekin, eta azken finean, koltxoiaren sektorean urte askotako esperientziarekin.

### FABRIKAKO PREZIOAN SALTZEN DUGU

Produktu guztiak guk geuk egiten ditugunez, fabrikako prezioan saltzen ditugu, bestelako gain-preziorik gabe. Erakusketa fabrian bertan dugu, Iruña-Huesca errepidean 9. kilometroan. Nafarroari dagokionez, bakarrik hor erosten ahal dituzu gure produktuak.

Etxe partikularrak ez ezik, Landa Etxeak, Aterpetxeak eta Hotelak ekipatzen ditugu. Zatoz eta ikus itzazu zuk zeuk atsedenerako sistemetan ditugun azken berrikuntzak.

# COLCHONES ATSEDEN

## KOLTXOI FABRIKA

### BISITA GAITZAZU

... eta ezagutu gure kalitatea eta prezioa



**Erakusketa eta salmenta:**  
malgukizko koltxoi,  
látex, viscolaxtic eta  
atsedena dirako  
beste osagarriak.

## GAUEAN ATSEDEN HAR EZAZU

Iruña-Huesca errep. Km 9  
Industrialdea  
31119 TORRES DE ELORZ  
(Nafarroa)  
Tfnoa: 948 346 000



Zure ametsen fabrika



Iruña de Corte y Confección S.L.

- Asteleheneetik-Ostiralera (8:00etatik 14:00etara)  
(16:00etatik 20:00etara)
- Uztailen goizeko ardurtegia soilik
- Larunbatetan 09:00etatik 13:00etara  
(uztaila eta abuztuaren izan ezik)

[www.colchonesatseden.com](http://www.colchonesatseden.com)



## GAZMENDI eraikuntzak

San Juan Karrika,  
Gara Bidea - COMILLA  
Tel: 948 410 120 - 948 491 558  
Fax: 419 449 784

## GOIENBURU iturgintza

iturgintza, kalefakzioa eta gasa

Goienburu, 10  
31790 ARANTZA

☎ 600 902 723  
☎ 670 251 632



## BERATARRA ARGINAK

Leitzako bidea, 66 - 8-2.c  
Doneztebe: 670 489 337  
Bera: 617 346 378  
DONEZTEBE

Hezetasun arazoak etxean

# Funtzekoa da aurrea hartzea, ikuskatzea eta diagnostikatzea

### Zergatien peskizan

- Hezetasuna hodiren bateko ur galararen edo ate-leihoen drainatze txarren ondorio izan daiteke.
- Lurreko mailaren azpitik dagoen so-toetako zola porotsua lurretik etxebizitzaren barnealderaino doazen hezetasunen eragile izaten da.
- Kondentsazioa eta manposteriako arrailak ere badira barnealdeko hezetasunen eragile.
- Kontuz ibili ate-leihoek hartzen dituzten kolpeekin, markoen inguruko entokadura erortzen ahal da, eta tarte horietatik ere sar daiteke hezetasuna. Bete itzazu tarte horiek uraren kontrako masilla bereziarekin.
- Ikuskatu urtean behin kanalen, ur-zorroteneen eta hormen iragazgaitasun egoera. Zain ezazu, era berean, drainatze-sarearen garbiketa eta zoruen balizko arrail eta zirrikituak. Horretan zabiltzala, ez ahaztu teilatuko isurbi-

deak (hustubideak, kanalonak eta gainezkabideak) garbi dauden eta behar bezala funtzionatzen duten ikuskatzea.

- Aztertu, hiru urtean behin, fatxadan arraidurarik edo deformaziorik sortu den eta teilatuaren kontserbazio egoera egokia den (teilak, inklinazio-alaketak, ea.).

### Nola nabaritu arazoa

- Egiaztatu kondentsazio arazoa den ala bestelakoa den: jarri eragindako paretan aluminiozko paper pusketabat, zinta itsaskorrez. Aluminioaren ageriko azalera lurruna agertzen baldin bada, kondentsazio arazoa da.
- Etxebizitzaren barnealdean eragina duten euri-iragazpenak zehazki mugaturiko orban gisa agertu eta, euria egitean, nabarmendu egiten dira.
- Paretak, barne zein kanpoaldean, gesal edo kresalezko orbanak agertzen baditu, arazoa behetik gorako heze-







tasuna da (lurretik igotzen dena, alegia). Hori garaiz tratatzen ez baduzu, litekeena da gerora paretan goroldioa agertzea eta barrenean pintura erori eta pareta lizuntzea.

- Ustekabeko hezetasunak ur-bideek (hodiren bat hautsi edo lehertu, gaizki elkarturiko juntura bat, ea.) eragin duten ihesen ondorioz agertzen dira eta horman edo sabaian aureola zentrokide gisa agertzen dira. Zenbat eta ur gehiago bildu, orduan eta zabalago agertuko da aureola.
- Eraikuntzan edo etxegintzan baliatzen diren materialak (hormigoia, igeltsua, ea.) nahasteko erabiltzen den urak azaleratzeko joera izaten du: horrek ere orbanak sortarazten ditu sabai, zola, pareta eta gainerakoetan.
- Kanpoko hezetasuna erakusten duen sintometako bat fatxadan efloreszentzia zuriak agertzea da. Lizuna, goroldioa edota arraildurak ere hezetasunaren seinale dira.

#### Hasi lanean!

- Aurreneko hezetasun sintomaren bat agertu bezain laster bilatu konponbidea emateko sistemarik egokiena; ondotik, iragazkaiztu edo inpermeabilizatu azalera hori, arazoa berriro gerta ez dadin. Ez utzi larriagotzen.
- Konpondu arraildurak agertu bezain laster, baita txiki-txikiak badira ere: baliteke horren atzean hodi zartatu edo ireki bat egotea; debora igarotzen utziz gero, filtrazioak arraildurara pasa daitezke eta, pixkanaka, pareta guztira hedatu.
- Euri edo elurrik sortarazitako filtrazioak lehenbailehen konpondu behar dira. Bertzenaz, hezetasuna etengabeko tanta bilakatuko da.
- Hezetasun seinalea lehertu aurretik ez ahalegindu azalera hori inpermeabilizatzen.
- Hezetasun orbana lehertzeko piztu gela horretako kalefakzioa eta eduki horrela hainbat egunetan, itzali gabe.

**Juan Ignacio Oartzabal**  
**ARKITEKTOA**  
**ARKITEKTOA**

948 630304 • Ipar karrika, 15 • BERA



**AROTEGI METALIKOA**  
 CARPINTERIA METALICA

Bidasoa kalea 76, 17. atea  
 31780 BERA (Nafarroa)  
 tel/fax: 948 631 651

### LUR-LAN eskabazioak

• Eskabazio lanak orokorrean  
 • Lur ateratzek, zantzetek.



Kazeme sarea, 3 • Tel: 948 630 449 • Mug: 653 017 967 • BERA

**AROTEGI METALIKOA**

**S. Odrizola**  
**B. Huici**

Tel.: 948 631 244  
 Faxa: 948 625 564

Alkaiaga Industrialdea • Elutxa karrika • Pab. 3/18  
 e-posta: sodrizola@wanadoo.es  
 31789 LESAKA

# OPARI PUBLIKATARIOAK

alde batetik  
**2006ko egutegia**  
 bestetik zure  
**publizitatea**

**0,12€**  
 bakoitza  
 1000 eguneko gaitza

**abartan**  
 CERRAMIENTOS • ITXITURAK

Santiago 56, bajo ■ 31700 ELIZONDO  
 Tel. 948 581 152 ■ 667 284 025 ■ 686 970 725  
 maxene@terra.es

**KULTURKARI**  
 PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK

eskatu aurrekontua konpromezurik gabe  
 Andutzeta 12 • 31760 ETXALAR • (0034) 948 635 458 • kulturkari@ttipi.net

**Ginko** lorezaintza

M. Karmele Tolosa

**GINKO LOREZAINZA**  
 31760 Etxalar (Nafarroa)  
 Telefonoak:  
 617 350 025 - 667 694 867  
 email: zumeldi@terra.es

PROIEKTUAK ETA AHOLKULARITZA HIRIGINTZA ETA FAMILIA BAKARREKO ETXE BERRIETAN  
 Proyectos y asesoramiento en urbanizaciones y unifamiliares nuevas

PLANIFIKAZIOA ETA DISEINUA LORATEGI BERRIETAN ETA ZAHARBERRITZETAN  
 Planificación y diseño de jardines nuevos y reformas

ZURE ARREKONTURA MOLDATZEN GARA

**GEEA**

**GEEA GEOLOGOS. S.L**

IKERKETA GEOTEKNIKOAK  
 ETA HIDROGEOLOGIKOAK

edozein eraikuntzarako zimentatzeak,  
 eraikuntza zibila, lurpeko urak, ingurugiroa...

[www.geea.es](http://www.geea.es)

696 435 907 / 606 507 335  
 Iturlandeta, behea - 31780 BERA

**txokoberri**

• Aluminioan  
 espezializatuak  
 Aroztegi Metalikoak  
 (leihoak, ateak, barandak.....)

• Parket

Eneko eta Alfredo  
 / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 861 924

**ETXEBESTE**

Itureintza • Kalefakzioa • Gasak

948 630 002 • 670 412 998

Herriko Etxeko Plaza, 10  
 BERA

Lijatzeak • Barnizatzeak

**J.L. Iturbide  
 Irisarri**

948 453 008 / 696 357 496  
 Tximindo karrika, 48A - 2.C - ARIZKUN

**ZURLAN**

ateak • leihoak • tarimak  
 Sukalde mobleak  
 Armairu enpotratu

Goiko Errota - LEITZA  
 Tfnoak: 948 510 402 - 609 067 123

Kolapregi Auzoa, 6 Denakorriko Etxea 31770 Leizola-Navarra  
 Tel: 948 627 554 - 656 763 186

•Txus Ubiria Andueza  
 margoketa lanak • pintor



# OLAZAR aroztegia S.L.

- aroztegi metalikoa
- itxiera metalikoak
- aluminio aroztegia
- estuktura metalikoak
- zerrailgintza
- galdaragintza
- ate baskulatzailleak
- ate automatikoak

Aparan Ind, 1  
Tfnoa - Faxes:  
948 456 183  
Mugikorra:  
649 139 365  
**DONEZTEBE**

**INDEGIA  
ZUBOINGOIA**

Telatuak zurak  
Ebe zaharren moldaketak  
Ebe berriak  
Eskailerrak  
Armaru erprotatutak  
Ateak - Lehoiak  
Sukalde mobilak

☎ 948 451 300 ☎ 948 531 022  
**AMITZ**

*zuk nahi duzun diseinua*

luis  
cestau  
baraibar

arkitekto  
teknikoa

leitza  
607204485

lucésba  
@  
msn.com

## HUR-BERRI S.L.

- iturgintza
- kalefakzioa
- elektrizitatea

Tel: 948 452 449 Faxes: 948 452 452  
Mugikorra: 616 791 071  
Oharriz auzoa - 31795 LEKAROZ

## Saneamientos GARE

- Bainugelako altzari eta osagarriak.
- Hidromasaj dutxa eta bainuontziak
- Berogailu instalakuntzak.
- Gas natural instalakuntzak.
- Tituludun teknikiariak.

Kanttonberri, 10 behea  
Bera  
Tfnoa: 948631107  
Fax: 948631002  
Mugikorra: 608976034

## J B Iturria CONSTRUCCIONES

## Mendinueta INMOBILIARIA

## Prado de Paularena INMOBILIARIA

Apartamentu, pisu, lokal eta garajetak egin eta  
sailzeho, libreak eta babes ofizialekoak.

**J.B Iturria, S.L.**  
Bendinueta, 6 behea  
31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
Apartado 15  
Tfno: 948 500 304  
Fax: 948 501 174  
Email: jiturria@telefonos.es

## PINTURAS PIKABEA MOLINERO

Profesionalentzat prezio berezia

2.000 kolore baino gehiago lortzen  
ahal duen makina, 10 minututan  
zuk nahi duzun kolorea

PINTURAK • DROGERIA • ESMALTEAK • BERNIZAL  
LASURE URPINTURA • MARGO KLASE GUZTIAK

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean • BERA  
Tel: 948 630 240 • Mug: 627 622 333

**ILLURDI zurgindegia**

- ateak
- tarimak
- parketak
- leihoak
- eskailerak
- teilatuak
- porbeak

Klase guztietako zurgin lanak

670 30 35 20  
680 98 68 36  
31700 ARANTZA Nafarroa

**Iñaki OLAIZOLA**

- \* elektrizitatea orokorrean
- \* muntaia elektrikoak
- \* alarmak

Bittoria karrika, 39 - LESAKA  
948 637 405 - 670 417 499

**KURRIONDO ZURGINDEGIA**

Zurgin lanak orokorrean

Teilatuak, eskailerak, leihoak, ateak, tarimak...

Tel.: 948 631 430 • Fax: 948 625 330  
Mugikorra 607890923 • BERA

**PUERTAS PAGOLA**

**SALMENTA eta PARATZEA**

- Ateak
- Leihoak
- Eskailerak
- Armairu enpotratuak
- Parketa
- Tarima...

Tel: 636 17 28 95  
Tel-Faxa: 948 630383

## Pinturaren indarra

# Pareten kolorea

### Hasi aurretik

Lana erraz eta eraginkorrago izateko, hobe dugu honako tresna hauek esku-ratzea: eskailerak, babesteko zinta, main-dire edo zatarren bat (pintatu ezin daitezkeen elementu finkoak estaltzeko), espatulak, lixa, eragilea, pintura zaharra kentzeko behar dena; gutienez, hiru tamainetako pintzelak, ile sintetiko edo naturalekoak (hauek garestiago badira ere, gehiago irauten dute); arrabolak azalera handiak, sabaiak eta paretak pintatzeko eta, azkenean, ontziak. Arrabola aukeratzuz gero, bandeja beharko dugu; pintzela nahiago izatekotan, gaiak na-

hasteko adibidez, bestelako ontziak ere izanen ditugu premiazkoak. Hermetiko-ki ixtekoak baldin badira, hautatu horrelakoak: nahasketa bera aurrerago erabiltzeko aukera emanen digute eta.

### Nola aukeratu pintura

Pintura kontuetan jakitun ez bazara, lortu nahi den bukaera eta dagokion azalerarentzat pintura egokiena aukeratu aurretik, hobe dugu aholkua eskatzea. Kolorea zaletasunen arabera aldatzen den arren, zerrenda komertzial batekoa izan edo nahasi behar ditugun tonuak erositara ere, hamaika aukera ditugu eta,





hortaz, erabaki aurretik ongi finkatu behar dugu iritzia. Zerrenda komertziale-tako koloreak azalera ttiki-ttikietan agertzen dira baina, errealiteran eramanik, dezente bizi eta agresiboago dirudite. Beraz, bainila tonuko horia nahi badugu, hobe da beilegi hitsa daukan potea aukeratzea. Kontuan hartu, horrez gainera, kolorearen tonua argitasunak aldatzen duela. Kopuruak kalkulatzeko, estali beharreko azalaren zabalera eta luzera neurtu behar ditugu, tarteak (leihok, ateak, ea.) salbuetsi gabe. Hobe da guk hautatu dugun pintura horren litroak zenbat metro pintatzen duen eta zenbat esku eman behar diren hornitzaile-ari galdetzea, emaitza on-ona erdietsi nahi badugu.

- **Latex eta sabaientzako pinturak.** Berehala lehortzen dira, pintatzeko une-an usain gutti dute eta erraz aplikatzen dira. Bukaera matea du. Metal, azulejo eta zeramiketari izan ezik, gainerako azalera guzietan emateko aproposa. Litroak 12 metro kuadro estaltzen ditu.
- **Satinola.** Aurrekoa bezain azkar le-

hortzen ez denez, pintatzeko une-an usain bizi-bizia du eta pintatzea ez da kontu erraza (orbanak sor daitezke berdin-berdin margotu ezean, tantak eta arrasto itsusiak nabarmenduz). Gaizki pintaturiko atalak ez du konponketarik: pareta osoa margotu beharko da berriz ere. Bukaera distiratsua da. Komeni da igeltsuzko bukaera fin-fina duten azalerekin bakarrik ematea. Litroak 12 metro koadro estaltzen ditu.

- **Esmalte sintetikoa.** Azkar lehortzen da, pintatzeko une-an usain gutti du eta aplikatzeak ez du inolako arazorik ematen. Bukaera distiratsua du. Komenigarria metal eta egurrezko azalerekin emateko: marko eta leihoetan, kanpoaldean paregabeko erresistentzia du.
- **Pintura plastikoa.** Azkar lehortzen da, pintatzeko une-an usain gutti du eta, jakina denez, uretan garbitzeko aukera du abantaila nagusia. Aplikatzeak ez du arazorik sortzen eta, aunitz estaltzen duenez, sabai eta paretak pintatzeko egokia da. Litroak 20 metro koadro estaltzen ditu.

## Matias MITXELENA eraikuntzak

— Etxeak

— Zaharberritzeak

— Teilatuak

Tfnoa: 948 637182 • 608 777 908 • LESAKA

## MERYT

Materialak

Beran, eraikuntzako biltegi orokorra

Ubela industrialdea • Tel: 948 631 201 • BERA

## Juantxo San Miguel

- Iturgintza
- Kalefakzioa eta gasa

Tfnoak: 948 450 866 • 626 112 415

Elizagibela kanika, 2 - 3A • 31740 DONEZTEHE



CLIMALIT kristal bikoitza  
ISPILUAK edozein lodiera eta  
kolorekoak, alakadunak, kanteatuak...  
BEIRA-PLAKA LANDUAK  
BEIRA BLINDATUAK

Antoiu, 34 C - 667 424649 • LESAKA

Tel: 948 450 773  
Mugikorra: 619 418 959  
Auloa Baserría - SUNBILLA

# ESPELOSIN

eraikuntzak

## EZPELURA ITURGINTZA S.L.



- \* kalefakzioa
- \* gasa
- \* elektrizitatea

Tfnoa: 606 337 427 - 31751 OITZ (Nafarroa)

- Marmola eta granitoarekin edozein lan
- Sokalde eta komunitarako errezimera
- Fatxadak
- Hilerri larak
- Inskripzioak
- Eskailerak



**MARKETIA ALKAIAGA S.L.**

Alkaiaga industrialdea  
Ziobi kalea, 11 (sarrera Beratik)  
Tfnoa eta faxa: 948 631215  
Mobiila: 609207731  
31879 LESAKA (Nafarroa)



## LUCIANO IRIARTE S.L.

Eskabazioak  
Eskoilerak  
Lur Mugimenduak

948 59 21 39  
Narbarte (Nafarroa) 649 94 71 81

### Lanaren antolaketa

Pintatze-lanetan hasi aurretik hobe da gela egurastea eta, berehala, hautsik altxa ez dadin, ate-leihoak ixtea. Bertzenaz, hautsa pintura hezeari itsatsiko litzazkioke. Pintatzen hasteko modurik egokiena hau da:


- **Lehen urratsa:** hasi sabaia pintatzen. Paretetara igaro aurretik, eman sabaia behar dituen esku guztiak.
- **Bigarren urratsa:** paretak. Hasi paretak bateko eskuineko goi bazterretik; hurrengo azalerara igaro aurretik, aurrekoa erabat bukatu behar dugu beti. Eskualdi guztiak norabide berean emanen ditugu.
- **Hirugarren urratsa:** ate-leihoak. Estali beti zintarekin pintatu behar ez diren elementuak (bisagrak, sarraillak, beirak, ea.).
- **Laugarren urratsa:** zokaloak, lurzuruko ertza zintarekin estalita, pinturaz zikin ez dezagun.

### Pintatzeko lana profesionalen esku uzten bada...

hainbat kontu gogoan izan beharko ditugu. Prezioa zehazteko bi oinarriak honako hauek dira: pintatu beharreko metro koadroen kopurua batetik, eta pintura-mota bestetik. Azken honek lanaren prezioa zerbait altxa dezake, baina ez askozaz ere garestiago bihurtu. Gaur egun dauden pinturak erabiliz, ez da ohiko kontua etxea gauez hutsik utzi behar izatea, lanaren antolamenduak hainbat gela libre edukitzea ahalbideratzen diolako langileari. Ahal den neurrian, haien lana erraztea komeni izaten da, altzariak baztertuz edo koadroak kenduz, laneko denbora eta, horren ondorioz, fakturako munta murriztu egingen delako.

### Pintatzea eta ekologista izatea

Etxea pintatutakoan, tresneria eta pintura poteak behar den edukiontzian uzteaz gainera, kontuan hartu honako hauek ere. Pintatzen ari den bitartean eta lana amaitu ondotik ere ingurugiroa zaintzekak merezi du: gogoan izan gai horiek biziki toxikoak direla, sekula ez biodegradagarriak. Material horiek tratatzeko sistema egokia, beti bi ontzi erabiltzea da: lehendabizikoan brotxak, poteak eta tresneria garbituko ditugu eta, azkenean, ontziak berak. Ur (edo olio) eta disolbatzailez osaturiko pintura guztietarako bali du horrek. Ez ahantzi, ontziak mugitu ohi izatearen eraginez pinturako so-



lidoak likidotik bereizten direla eta, horrela, osagai bakoitza eskuratzea errazago izanen dugula.



lesaka<sub>ko</sub>

feriak

azaroaren 24<sup>an</sup>





# Lesakako feriak

**TALLERES FRAIN**  
LESAKA - TEL: 948 637 528

ongi pasa feriak

**Dia %**

Lesakako ferietan  
otordu goxoak  
prestatzeko

LESAKA

LESAKAKO DIA

**Dia %**

Plaza Berria, 10 - 948 637 335

**IÑAKI** janaridenda

Feria ederra pasa itzazuell

Arretxe, 12 - 948 638 287 - LESAKA

PASTELERIA **HAIZEA** BOLLERIA  
CAFETERIA

Tel: 948 638 036  
Plaza Zaharra, 7  
31170 LESAKA  
Ongi pasa feriak!

**ETXEBERRIA**  
**OSTATUA**

Plaza Zaharra, 21  
Tfnoa: 948 637 700 - LESAKA

**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA



IMANOL TELLETxea ZOZAYA  
Tel: 948 63 74 69  
31170 Lesaka (Navarra)

**Kalefakziorako Gasoila**  
etxez etxe banatzen da

*Ongi pasa feriak*

## Egitaraua

### Azaroak 23, asteazkena

*Merkatu eguna*



Arratsaldeko 6etan Ajourriero txapelketa, Beti-Gazte elkarteak antolatuta.

### Azaroak 24, ortzeguna

*Feria eguna*



- Goizean plazan azien den feria eta artisau erakusketa izanen da.
- Goizeko 11etan plaza zaharrean aizkolariak: Patxi Larretxea, Gari-koitx Larretxea eta Oihan Larretxearen erakustaldia. Gero, Mindegia eta Otaegi; Donato Larretxea eta Xabier Mindegiaren kontra.



- Eguerdian azien den sari banaketa eta bertsolariak: Lizaso eta Egaña.
- Arratsaldeko 17:30etan udal pilotalekuan Pilota Partiduak:

Baleztena-Laskurain; Larralde-Zubieta Irujo-Apeztegia; Del Rey-Goñi III.

- Arratsaldeko 19:30etan plaza zaharrean dantzaldia TRIKITAKE taldearekin.
- Egun guztian "baserritarren jantziak" erakusketa idekia Beti-Gazte elkartearen egoitzan

**Inguruko ferien artean  
azienda lehiaketa bakarra da  
Lesakakoa**





## Ameriketean artzain Lesakako artzainek topaketa egin zuten urriaren 28an

Urriaren 28an, Artzain Mundua Fundazioak hitzordua zuen Lesakan. Ameriketara lan hori egitera joan ziren hainbat lesakar gonbidatu zituzten beraien esperientziak kontatzeko. Herriko 15 artzain ibilitakoak bildu ziren, baita Sunbillatik eta Etxalartik hurbildutakoak ere. Beraien kontakizunak aditzeko berriz, jende frango bildu zen Beti Gazten, 50 bat lagun.

